

2021 / 2022 ikasturtea

# **ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA PAZIENTE SUIZIDAREN AURREAN**

Naroa Saizar Artola



## LABURPENA

**Sarrera:** Munduko Osasun Erakundeko (OME) datuen arabera urtean munduan 700.000 pertsonak egiten dute bere buruaz beste. Osasun publikoko arazoa da suizidioaren fenomeno eta argi dago erizainaren papera oso garrantzitsua dela kontuan izanik erizaina maila asistentzial guztietan dagoen figura dela. Erizainak suizidioaren prebentzioa eta honek beragan hartzen dituen zainketak emateko prest egon behar du.

**Helburua:** Suizidioaren arrisku, babes eta faktore bizkortzaileak deskribatu, arrisku suizida duen pazientearen ebaluazioa zehaztu eta gaur egun suizidioaren aurrean dauden erizaintza esku-hartze ezberdinak aztertzea, lehen arreta maila eta larrialdi mailan.

**Metodologia:** errebisio bibliografikoa burutu da PIO egituratik abiatuz, hainbat osasun arloko datu-base erabili dira; *Pubmed*, *Biblioteca Virtual en Salud (BVS)*, *DialNet* eta *CUIDEN*. Bestalde, gaiaren inguruko hainbat web-orrialde kontsultatu dira: *OME*, *Fundación Española para la Prevención del Suicidio (FSME)*, *Zero Suicide Institua*, *Suicide Prevention Resource Center (SPRC)* eta Osakidetza.

**Emaitzak:** Suizidioa prebenitzeko ezinbestekoa da suizidio-arriskuaren faktoreak identifikatu eta arrisku horiek arintzea esku-hartzeen bidez. Gainera, arrisku suizida duen pazientearen ebaluazioa egitea oso beharrezkoa da, horretarako bi tresna egonik: eskalen erabilera eta elkarrizketa klinikoa. Lehen arreta mailako osasun profesionalak suizidioaren arrisku maila baloratuko du (baxua, erdikoa eta altua) eta horren arabera esku-hartzea eta deribazioa egingo da. Larrialditako unitatean, osasun profesionalak erositutasuna eta lasaitasuna eskaini beharko dio pazienteari, bere segurtasuna ziurtatuz, eta pazienteak bakarrik ez utziz.

**Eztabaida:** Aztertutako literatura guztiak bat egiten du suizidioa osasun publikoko arazoa denaren ideiarekin. Bestalde, beharrezkoa da arrisku-faktore tipikoez gain, gaur egunerako zehatzagoak direnak aztertzea, batez ere gazteen artean. Aztertutako protokolo eta gidetan suizidioaren ebaluaziorako eskalen erabileran eta deribazioetan kontraesanak daude, baita arrisku-maila zehazteko garaian ere.

**Ondorioak:** Suizidioaren arrisku-faktore nagusia nahasmendu mental bat izatea eta aurretiko saiakerak dira. Suizidioaren prebentzioa eta esku-hartzea egiteko beharrezkoa da jarraibide bateratu bat egotea. Horretarako, Espainian ezinbestekoa da suizidioaren prebentziorako Plan Estrategiko Nazional bat sortzea.

**Hitz gakoak:** Suizidioa, prebentzioa, arrisku-faktoreak, erizain esku-hartzea.

## AURKIBIDE OROKORRA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>2. HELBURUAK</b> .....	<b>3</b>
2.1. HELBURU OROKORRA .....	3
2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK .....	4
<b>3. METODOLOGIA</b> .....	<b>4</b>
3.1. BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN ESTRATEGIA.....	4
3.2. BARNERATZE-KANPORATZE IRIZPIDEAK ETA IRAGAZKIAK.....	5
3.3. BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK.....	6
<b>4. EMAITZAK</b> .....	<b>7</b>
4.1. SUIZIDOAREN ARRISKU-FAKTOREAK, BABESTZAILE- ETA FAKTORE- BIZKORTZAILEAK.....	7
4.1.1. FAKTORE INDIBIDUALAK .....	7
4.1.2. FAKTORE SOZIOFAMILIARRAK ERA TESTUINGURUAREN ARABERAKOAK .....	9
4.1.3. NERABEEN ARRISKU-FAKTOREAK.....	9
4.1.4. HIRUGARREN ADINEKOEN ARRISKU-FAKTOREAK .....	10
4.1.5. FAKTORE BIZKORTZAILEAK .....	10
4.1.6. BABES FAKTOREAK:.....	11
4.1.7. ARRISKU SUIZIDA DUEN PAZIENTEAREN EBALUAZIOA.....	11
4.2. ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA LEHEN ARRETA eta LARRIALDI MAILAN .....	14
4.2.1. LEHEN ARRETA MAILA .....	14
4.2.2. LARRIALDIK.....	16
4.2.3. GIPUZKOAKO SUIZIDIOAREN PREBENTZIORAKO PROGRAMA PILOTUA .....	17
<b>5. EZTABAIDA</b> .....	<b>18</b>

6. ONDORIOAK.....	20
7. BIBLIOGRAFIA .....	22
8. ERANSKINAK .....	27

## TAULEN AURKIBIDEA

1. <b>taula:</b> PIO egituran oinarrituta aukeratutako DeCS, MeSH, hitz gako eta hizkera librea.....	5
2. <b>taula:</b> Web-gune desberdinetan erabilitako dokumentuen zerrenda.....	6
3. <b>taula:</b> Suizidioaren babes faktoreak.....	11
4. <b>taula:</b> Suizidioaren ebaluaziorako eskalak.....	13
5. <b>taula:</b> Kasu bakoitzean erabili beharreko eskalen gomendioa.....	14

## ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. <b>eranskina:</b> Datu-baseetan erabilitako bilaketa-estrategia eta bilaketa-emaitzak.....	27
2. <b>eranskina:</b> Alper eta Haynes-en piramidea.....	29
3. <b>eranskina:</b> Bilaketa-emaitzak ebidentzia-mailaren arabera sailkatuta.....	29
4. <b>eranskina:</b> Nerabeen “arrisku-faktore berri” gisa definitutakoak.....	33
5. <b>eranskina:</b> APAk bere buruaz beste egiteko arriskuaren eta jokabidearen ebaluazioa zein egoeratan egitea den egokia laburtzen duen taula.....	34
6. <b>eranskina:</b> SPCR-ak lehen arreta mailarako egindako lan tresnan aipatzen diren suizidioaz galdetzeko zehaztapenak.....	34
7. <b>eranskina:</b> Suizidioaren arrisku-mailaren sailkapena OMEren SUPRE programan definitutakoaren arabera.....	37
8. <b>eranskina:</b> <i>Manchester Triage System</i> (MTS) araberako larritasun mailak.....	38
9. <b>eranskina:</b> APA-k ospitalean ingresatzeko ezarritako irizpideak.....	38

## LABURDURAK

**APA:** American Pyschiatric Associaton.

**BVS:** *Biblioteca Virtual en Salud.*

**DeCS:** *Descriptores en Ciencias de la Salud.*

**EAAD:** *European Alliance Against Depression.*

**EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa.

**ESI:** Erakunde Sanitario Integratua.

**FSME:** *Fundación Española para la Prevención del Suicidio.*

**INE:** Espainiako Estatistika Institutua.

**MeSH:** *Medical Subject Heading.*

**MTS** *Manchester Triage System.*

**OME:** Osasunaren Mundu Erakundea.

**SPRC:** *Suicide Prevention Resource Center.*





## 1. SARRERA

1976an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitu zuen suizidioa: “emaitza hilgarria duen ekintza, subjektuak nahita hasi eta egina, emaitza hilgarria jakin edo espero duena eta, horren bidez, nahi diren aldaketak lortu nahi dituen”. Parasuizidioa berriz, “emaitza hilgarririk ez duen ekintza, pertsona batek, beste batzuen laguntzarik gabe, bere burua bere kabuz zauritu edo substantziak irensten dituen espero diren ondorioen bidez bere egoera fisikoan aldaketak lortzeko” (1).

Gaur egun berriz, jokabide suizidaren kontzeptualizazioa konplexuagoa bilakatu da eta horren aurrean, haren inguruko definizio zehatzagoak egitea beharrezkoa izan da. Honako hauek dira (1):

- **Ideiagintza suizida:** suizidioari buruzko pentsamenduak (kognizioak).
- **Komunikazio suizida:** norberaren bizitza amaitzeko pentsamenduak, desioak edo intenzionalitatea adierazten diren ekintza interpersonala da. Komunikazio suizida, ideia gintza suizidaren eta jokabide suizidaren arteko puntua da. Ez dago lesiorik. Bi komunikazio suizida mota daude:
  - **Mehatxu suizida:** etorkizun hurbilean jokabide suizida izan daitekeela aurreikus dezakeena.
  - **Plan suizida:** Jokabide suizida aurrera eramateko metodoaren proposamena.
- **Jokabide suizida:** norberaren kaltegarria izan daitekeen jokaera da. Larritasun desberdinetako lesioak eragin ditzake, heriotza barne. Honako hauek jokabide suizidatzat hartzen dira:
  - **Autolesioa:** Kaltegarria den lesioa baina nahikoa ebidentzia duena pertsonak hiltzeko asmorik ez duela.
  - **Jokabide suizida zehaztugabea:** Suizidio nahitasun gradu zehaztugabea duena.
  - **Suizidio saiakera:** berez kaltegarria izan daitekeen eta hilgarria ez den portaera, baina heriotza lortzeko nahia dagoela adierazten duen ebidentzia dago.
  - **Suizidioa:** norberak aurrera eramandako heriotza. Ebidentzia dago inplizituki edo esplizituki frogatzen duena pertsonak bere burua hiltzeko asmoa zuela.

Egungo datuei erreparatuz gero, argi dago suizidioa osasun publikoko arazo larria dela. OMEren datuen arabera urtean munduan 700.000 pertsonak egiten dute bere buruaz beste, hau da, 100 heriotzetatik 1 suizidioagatik da. Norbaitek 40 segunduro egiten du bere buruaz beste eta 2 segunduro saiatzen da beste bat; izan ere kontuan hartu behar da aurrera eramandako suizidio bakoitzeko batz best 20 saiakera egon direla atzetik (2, 3, 4).

Demografiari dagokionez, gizonen suizidio-tasa emakumeen kopuruaren bikoitza da (12,6 gizon 100.000eko eta 5,4 emakume 100.000eko) eta gizonezkoen suizidio-tasa altuenak diru-sarrera handiko herrialdeetan ematen dira. Emakumeen suizidio-tasa altuenak berriz diru-sarrera baxu eta ertainetako herrialdeetan izaten dira (5). Hala ere, kontuan hartu behar da emakumeak 3 aldiz gehiagotan saiatzen direla (4).

Mundu mailan gehien erabilitako metodoei dagokionez, urkatzea da ohikoena, eta, horren atzetik, su-armen erabilera gizonetan, eta pestizida edo botiken intoxikazioa emakumeetan (4).

Espainia mailan berriz, Espainiako Estatistika Institutuaren arabera (INE), Espainian inoiz erregistratutako zifra altuena izan da 2020koa; 9.941 heriotza izan baitziren suizidio arrazoia zutena; beste era batean esanda, egunean ia 11 suizidio izan ziren. 2019ko datuekin alderatuta, %7,4ko igoera egon dela ikusten da, gehien bat emakumeetan (%12,3ko igoera). Espainia mailan, suizidioa da heriotza ez-naturalaren arrazoi nagusia. 15-29 urteko gazteen arteko bigarren heriotza-arrazoia da tumoreen atzetik. Gehien erabiltzen den metodoa urkatzea da gizonetan eta amiltzea emakumeetan (6).

Bestalde, azpimarragarria da Covid -19ak eragindako pandemiak eragin zuzena izan zuela 2020. urteko datuetan eta ia lau hilabetez izandako konfinamenduaren eraginez, suizidio tasak jaitea espero zela, kanpo-heriotza tasak jaitsi zirela kontuan hartuta (kalera ateratzeko debekua zegoela eta). Nolanahi ere, nolabaiteko “errebote efektua” egon zela esan daiteke, 2019ko datuekin alderatuta 2020ko apirilean suizidio-tasa %19,2 jaitsi bazen ere, urte bereko abuztuan %34eko igoera egon baitzen (6).

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 2019an 137 pertsonak egin zuten beren buruaz beste. 2020an berriz, bere buruaz beste egin zutenen kopurua nabarmen igo zen, %30 hain zuzen ere. Azken urteetan EAEn gehien erabilitako metodoa amiltzea, urkatzea eta farmakoen bidezko pozoitzea izan dira (7).

Egoera honen aurrean OMEk suizidioa osasun publikorako lehentasun bat dela onartu du. 2014. urtean suizidioaren inguruko lehen txostena argitaratu zuen: “Prevención del suicidio: un imperativo global”, suizidioaren sentsibilizazioa handitzeko eta prebentzio programetan suizidioari bere lekua emateko asmotan. Bestalde, OMEko herrialdeek, OMEren Osasun Mentalari buruzko Ekintza Planaren (OME, 2013-2020) baitan, konpromisoa hartu dute 2030 urterako suizidioen tasa heren bat murrizteko (8).

Horretaz gain, 2021en urtean OMEk “Vivir la vida. Guía de aplicación para la prevención del suicidio en los países” publikatu zuen herrialdeei orientazioa emateko asmotan. Gida horrek lau estrategia nagusi zituen; suizidio-baliabideetarako sarbidea mugatzea, hala nola plagizida oso arriskutsuetarako eta su-armetarako; komunikabideak prestatzea, suizidioei buruzko albisteak modu arduratsuan zabal ditzaten; nerabeen artean bizitzarako gaitasun sozioemozionalak sustatzea eta pentsamendu eta portaera suizidak dituzten pertsonak garaiz detektatzea, ebaluatzea, kudeatzea eta haien segimendua egitea. Azken estrategia horretan nabarmentzen da osasun langileek hezkuntza espezifikoa jaso behar dutela suizidioaren detekzio goiztiar, ebaluazio, gestio eta jarraipena egiteko (9). Azken honekin lotuta, frogatuta dago bere buruaz beste egiten duten pertsonen erdiak bere familia medikuari kontsulta egin ziola hilabeteko epean eta 6tik 1ek egunean bertan (4).

Osasun publikoko arazoa da suizidioaren fenomeno. Erizainaren paperak garrantzia du honen prebentzian, kontuan izanik, erizaina maila asistentzial guztietan dagoen figura dela (lehen arreta maila, larrialdiak eta ospitalizazioa). Suizidioaren prebentzioa, ebaluazioa eta honek beragan hartzen dituen zainketak emateko prest egon beharko du. Horretarako, oso garrantzitsua da erizainak suizidioarekiko duen jakintza maila altua izatea, askotan bera izango baita arriskuan dauden pazienteak identifikatzeaz arduratuko dena. Hori dela eta, arriskuan daudenen ezaugarri eta faktoreak ezagutzea; eta behin identifikatuta, arrisku suizida duten pazienteen aurrean eduki beharreko jarrera (esku-hartzea) argi izatea oso beharrezko izango du.

## **2. HELBURUAK**

### **2.1.HELBURU OROKORRA**

Jokabide suizida duen pazientearen aurrean dauden erizaintza esku-hartzeak aztertzea.

## 2.2.HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Suizidioaren arrisku, babes eta faktore bizkortzaileak deskribatu eta arrisku suizida duen pazientearen ebaluazioa zehaztea.
- Gaur egun suizidioaren aurrean dauden erizaintza esku-hartze ezberdinak aztertzea, lehen arreta eta larrialdi mailan.

## 3. METODOLOGIA

Lan hau aurrera eramateko, gaiaren inguruko errebisio bibliografiko bat egin da. Horretarako jarraian azalduko den bilaketa-estrategia erabili da.

### 3.1.BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN ESTRATEGIA

Bilaketa bibliografikoa 2021ko abendutik 2022eko urtarrila bitarte egin da. Ebidentzian oinarritutako informazioa eskuratzeko, hainbat osasun arloko datu-base erabili dira; *Pubmed*, *Biblioteca Virtual en Salud (BVS)*, *DialNet* eta *CUIDEN*. Bestalde, gaiaren inguruko hainbat web-orrialde kontsultatu dira: Osasunaren Mundu Erakundea (OME), *Fundación Española para la Prevención del Suicidio (FSME)*, *Zero Suicide Institutoa*, *Suicide Prevention Resource Center (SPRC)* eta Osakidetza.

Bilaketa estrategia aurrera eramateko honako PIO/PICO egitura zehaztu da.

- **(P)** Patient / **pazientea, taldea** → Jokabide suizida duen paziente.
- **(I)** Intervention / **esku-hartzea** → Erizaintzako esku-hartzea.
- **(O)** Outcome / **emaitzak** → Suizidio saiakerak gutxitzea.

Beraz, egitura horretan oinarrituta ikerketa-galdera hau sortu da: “*Zein da paziente suizidaren aurrean erizainak egin beharreko esku-hartzea suizidio saiakerak gutxitzeko?*”

Behin PIO egitura zehaztuta, *Thesaurus-eko Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCS)* eta *Medical Subject Heading (MeSH)* terminoak eta hitz-gakoak bilatu dira (ikus 1. taula). Gainera, bilaketa bibliografikoa egiterako garaian, lortutako deskriptore eta hitz gakoak euren artean konbinatzeko, AND eta OR eragile boolearrak erabili dira.

1. *taula: PIO egituran oinarrituta aukeratutako DeCS, MeSH, hitz gako eta hizkera libre.*

DeCS	MeSH	Hitz askeak	Hitz Gakoak
- Suicidio	- Suicide	- Suicidio	- Suicidio
- Intento de Suicidio	- Suicide, Attempted	- Urgencias	- Enfermería
- Ideación Suicida	- Suicidal Ideation	- Enfermería	
- Anciano	- Aged	- Atención primaria.	
- Adolescente	- Adolescent	- Factores de riesgo.	
- Factores de Riesgo	- Risk Factors		
- Prevención	- Prevention		
- Enfermería	- Nursing Care		
- Urgencias Médicas	- Emergency hospital services		
- Atención Primaria de Salud	- Practice Guideline		
- Guía de Práctica Clínica			

Iturria: *Propioa.*

### 3.2.BARNERATZE-KANPORATZE IRIZPIDEAK ETA IRAGAZKIAK

Bilaketa bibliografikoa mugatzeko asmotan, barneratze- eta baztertze-irizpideak zehaztu dira. Barneratze-irizpideei dagokienez 2011-2021 tarteko artikulua, herrialde garatuetan oinarritutako artikulua, erizainaren esku-hartzea agertzen diren artikulua eta testu osoa eskuragarri duten artikulua aukeratu dira. Baztertze-irizpideei dagokienez, kolektibo zehatzetan zentratzen diren artikulua (gaixotasun mental bat dutenak, LGTB kolektiboa, gaixo onkologikoak...), helburutik urruntzen diren artikulua, farmakoetan zentratutako artikulua eta osasun profesionalen suizidioaren inguruko artikulua baztertu dira.

Bilaketa mugatzeko asmotan, datu-base bakoitzean iragazkiak aplikatu dira:

- **PubMed** datu basean: Meta-analisi eta errebisio sistematikoak, azken hamar urtetakoak eta ingelesez eta gaztelaniaz dauden artikulua.
- **BVS**: Errebisio sistematikoak, azken hamar urtetakoak, ingelesez eta

gaztelaniaz dauden artikulua.

- **Cuiden:** Azken bost urtetako artikulua.
- **Dialnet:** Azken hamar urteetako artikulua, aldizkariko artikulua eta testu osoa.

### 3.3.BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK

Bilaketa bibliografikoak egin ostean, datu-baseetatik **15 artikulua** aukeratu dira. (Ikus 1. eranskina). Gainontzeko artikulua lehen aipaturiko web-orrietatik aukeratu dira; OME, FSME, *Zero Suicide Institutoa*, *SPRC* eta Osakidetza (Ikus 2. taula). Bestalde, bi liburu ere erabili dira: “Prevensuic: Guía Práctica de prevención del Suicidio para profesionales sanitarios” eta “Suicidios: Manual de Prevención, Intervención y Postvención de la Conducta Suicida”.

15 artikulua horiek eta erabilitako bi liburuak Alper eta Haynes-en piramidean oinarritat hartuz (10) (ikus 2. eranskina), ebidentzia-mailaren arabera sailkatuak izan dira. Bestalde, artikulua eta liburu horien izenburua, egileak, argitarapen-urtea, gai nagusia eta ebidentzia maila 3. eranskinean ikus daitezke.

*2. Taula: Web-gune desberdinetan erabilitako dokumentuen zerrenda*

<b>OME</b>	- Prevención del suicidio: un imperativo global.
<b>SPRC</b>	- <i>Suicide prevention toolkit for primary care practices.</i>
<b>Zero Suicide</b>	- <i>Suicide Prevention in Primary Care: A Toolkit for Primary Care Clinicians and Leaders</i>
<b>Fundación Española para la Prevención del Suicidio (FSME)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Madril:</b> “Guía para la detección y prevención de la conducta suicida”.</li> <li>- <b>Euskadi:</b> “Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia”.</li> <li>- <b>Asturias:</b> “Protocolo de detección y manejo de caso en personas con riesgo de suicidio”.</li> <li>- <b>Valentzia:</b>” Prevención del suicidio: Guía informativa para profesionales de sanidad”.</li> <li>- <b>Katalunia:</b> “Codi risc de suïcidi”.</li> <li>- <b>Andaluzia:</b> “Recomendaciones sobre la Detección, Prevención e Intervención de la Conducta Suicida”.</li> <li>- <b>Nafarroa:</b> “Protocolo de colaboración interinstitucional: Prevención y actuación ante CONDUCTAS SUICIDAS”.</li> </ul>
<b>Osakidetza</b>	- “Urgencias psiquiátricas: Intento de suicidio”.

**Iturria:** *Egilea*

## 4. EMAITZAK

### 4.1.SUIZIDOAREN ARRISKU-FAKTOREAK, BABESTZAILE ETA FAKTORE BIZKORTZAILEAK

Jokabide suizidaren arrisku-faktoreak pertsona baten suizidalitatean eragina dutenak dira (11). Suizidioa prebenitzeko erantzun eraginkor guztien oinarria da suizidio-arriskuaren faktoreak identifikatzea eta arrisku horiek arintzea esku-hartze egokien bidez. Portaera suizidak konplexuak dira eta orokorrean suizidioa oso gutxitan eragiten du faktore bakar batek; izan ere, normalean hainbat faktoreren elkarreaginean dela eta, pertsonaren bere buruaz beste egiteko zaurgarritasuna handitzen da (8, 12, 13, 14). Horregatik, suizidioa multifaktoriala; egungo faktore biologiko, psikologiko, ingurumeneko eta egoerazkoen elkarrekintzaren eraginpean baitago eta multikausala dela esaten da (15). Gainera, orokorrean arrisku-maila, dagoen faktore-kopuruaren proportzioan handitzen da, nahiz eta batzuek beste batzuek baino pisu espezifiko handiagoa izan (1).

Arrisku-faktoreen sailkapena egiteko bi talde nagusi desberdintzen dira: **Aldagarriak**, faktore sozial, psikologiko eta psikopatologikoekin lotura dutenak, klinikoki alda daitezkeenak (nahasmendu psikiatrikoak, osasun fisikoa eta dimentsio psikologikoak) eta **aldaezinak**, norbanakoarekin eta hauen talde sozialarekin lotura dutenak, klinikoki alda ezin direnak (heredagarritasuna, sexua, adina, egoera zibila, lan egoera, erlijioa, euskarri soziala, aurretiko jokabide suizidak) (1, 16, 17). Beste alde batetik, arrisku faktoreak beste modura ere sailka daitezke: indibidualak, soziofamiliarak eta testuinguruaren araberakoak (1).

#### 4.1.1. FAKTORE INDIBIDUALAK

➤ *Nahasmendu mentalak*: Autopsia psikologikoa egin den ikerketa batean, hau da, dagoeneko hil den norbaiten egoera mentala zein zen zehazten denean, beren buruaz beste egiten dutenen %90an nahasmendu mental bat dagoela ikusi da (14, 11). Gainera, Europan mailan egindako errebisio sistemako batean frogatu da suizidio mota guztietan gehien eragiten duten faktoreak depresioa eta edozein afektibitate nahasmendu direla (18).

- **Depresio-nahasmendu** nagusiak 20 aldiz handitu dezake suizidio-arriskua, batez ere depresioren hasiera eta amaieran, tarteko fasean moteltze psikomotorra eta inhibizioak oztopatzen baitute (16). Arriskua

handiagoa da 30-40 urteetan agertzen bada eta OMEren arabera suizidioen %65-90k erlazioa du depresioarekin (1, 11).

- **Nahasmendu bipolarra:** Pazienteen %25-50ak egiten dute suizidio saiakera bat eta arriskua handiagoa da komorbilitateak dituzten kasuetan (1, 15, 16, 17, 18).
  - **Eskizofrenia:** Suizidio arriskua populazio orokorra baino 30-40 aldiz handiagoa da eskizofrenia diagnostikoa dutenengan (1, 11). Gainera, pazienteak bakarrik bizi bada arriskua handitu egiten da (15).
  - **Antzietate nahasmendua** dutenengan ideia gintza suizida eta saiakerak dira ohikoenak.
  - **Elikadura-nahasmendua** pairatzen dutenen artean estimatzen da %25-38ak jokabide autolitikoak dituela, bereziki emakumeen artean (1, 11). Arrisku gehiena anorexia urduria dutenengan ematen da (8 aldiz handiago) (11).
  - **Alkohol eta substantzia abusua:** Suizidioen %25-50 alkohola eta beste substantziak kontsumitzeagatik gertatzen dira (11). Bestalde, hainbat sustantzien dependentziak suizidio arriskua %20 handitu dezakeela ikusi da (16).
  - **Pertsonalitate nahasmenduak:** Mota honetako nahasmenduek beste nahasmenduekin komorbilitatea izanez gero suizidio arriskua handitu egiten da, batez ere mugako pertsonalitate nahasmendua dutenengan (1).
- *Faktore psikologikoak:* Jokabide suizidekin lotura duten ezaugarriak honako hauek dira: oldarkortasuna, pentsamendu dikotomikoa, zurruntasun kognitiboa, itxaropenik eza (%91an adierazten da), arazoak konpontzeko zailtasuna eta perfekzionismoa (1, 11). Gainera, ezegonkortasun emozionala eta kanporakoitasuna jokabide suizidarekin erlazionatzen diren ezaugarriak dira (16, 17).
- *Aldez aurreko suizidio saiakera eta ideia suizidak:* Aurretik egindako saiakerak dira arrisku-faktore nagusietako bat dira, suizidioen %50ak baitu suizidio saiakera aurrekaria. Saiakera egin eta hurrengo sei hilabete eta lehen urtean zehar arriskua 20-30 aldiz handitzen da (1, 11, 17).
- *Gaixotasun fisikoa edo desgaitasuna:* Suizidioen %25etan gaixotasun fisikoa agertzen da. Gaixotasun kronikoko mina, mugikortasunaren galera, desgaitasuna



eta gaixotasunaren pronostiko txarra suizidio arriskuarekin lotu dira (1, 11).

- *Faktore biologiko eta genetikoak:* Jokabide suizida, likido zefalorrakideoan serotonina eta metabolito maila baxuekin erlazionatu izan da (1).
- *Adina:* nerabezaroan eta adineko pertsonetan, suizidio-saiakera gehiago daude. Adinekoek nerabeek baino hiru aldiz suizidio-tasa handiagoak dituzte, metodo hilgarriagoak erabiltzen dituztelako, besteak beste (1). Ideiagintza tasa altuagoa da gazteen artean, %1-20 tartean (1).
- *Generoa:* Emakumeen ideiagintza suizida eta suizidio-ahalegin tasak 3-4 aldiz handiagoak dira gizonekin alderatuta. Gizonen artean aldiz, suizidio burutua 2-4 aldiz handiagoa da (11, 17).

#### 4.1.2. FAKTORE SOZIOFAMILIARRAK ERA TESTUINGURUAREN ARABERAKOAK

- *Familiaren suizidio-historia:* Aita edo amaren suizidio aurrekariak izateak arriskua lau aldiz igotzen du. (11).
- *Babes soziofamiliarra:* Suizidioa ohikoagoa da bikote gabeko pertsonetan, hala nola, ezkongabe, dibortziatu, bakarrik bizi direnen edo laguntza sozialik ez dutenen artean eta modu berean arriskua txikiagoa bikote egonkorra dutenengan (18). Batez ere gizonen artean galera gertatu eta lehen hilabeteetan (1, 11, 17).
- *Maila sozioekonomikoa, lan-egoera eta hezkuntza-maila:* Langabezia eta pobrezia suizidio-arriskua handiagorekin lotu dira. Lan galera eta erretiroa hartzean handitu egiten da beraz arriskua (1, 11, 17, 18). Gainera, luzaroan langabezian daudenek suizidio-ahalegin gehiago dituzte (11, 17). Bestalde, estres handiko lanpostuetako langileek ere arrisku handia dute. Hezkuntza-maila baxua ere arrisku handiarekin lotzen da (1).
- *Bizi-gertakari estresagarriak:* Galera pertsonalak, ekonomikoak, arazo legalak eta konfliktoek arrisku-faktore gisa jokatzen dute. Gainera, suizidio burutu edo ahaleginak egin baino aurreko hilabetean eragin handiagoa du, batez ere gizonetan (1, 15, 17).

#### 4.1.3. NERABEEN ARRISKU-FAKTOREAK

Garrantzitsua da aipatzea suizidioa 15-29 urteko gazteen arteko bigarren heriotza-arrazoia dela tumoreen atzetik. Gehien erabiltzen duten metodoa botika bidezko suizidio saiakera da (19). Aipatu beharrekoa da nerabeak jokabide suizida izateko arrisku gehiago

duela, hainbat aldaketa fisiko, emozional eta sozial gertatzen diren bizitzako etapa delako nerabezaroa (20). Honen aurrean, nerabeek aurretik aipatutako arrisku-faktoreak partekatu arren, euren adin tarterako faktore espezifikoak ere badituzte. Esaterako, frogatu da gurasoekin erlazio txarra, euren babes nahiko ez izatea eta babes sozial gutxi izateak 10 aldiz handitu dezaketela arriskua (20). Familiaren papera garrantzitsua da adin horietan, izan ere; adin oso txikietatik pertsona horiengan eragin zuzena duena da familia eta norbanakoak eraikiko duen pertsonalitatean. Gurasoen banaketak ere eragina duela ere frogatu da. Bestalde, indarkeria mota ezberdinak, hala nola, tratu txar psikologikoak eta sexu-abusuek ere handitzen dute arriskua. Haur-abusuaren biktima izan diren nerabeen artean sei aldiz sarriago burututako suizidioa (20). Azpimarratzekoa da ere, nerabezaroan zehar hezkuntza-sisteman bullying-a jasateko aukera duela, honek ere garrantzia hartuz, frogatuta baitago eskola-jazarpena lotuta dagoela ideia suizidarekin eta suizidio-ahaleginarekin (11, 20). Gainera, kalifikazio txarrak lortu eta itxaropen akademikoak ez betetzea suizidio-arrisku handiagoarekin lotzen da (19). Arrisku-faktore hauen gain, 2020an egindako errebisio sistematiko batean (3), aurretik aztertutako eragileez gain “arrisku-faktore berri” bezala definitutakoak azaldu dira (Ikus 4. eranskina).

#### 4.1.4. HIRUGARREN ADINEKOEN ARRISKU-FAKTOREAK

Hirugarren adineko pertsonetan, suizidio saiakera gehiago emakumeek izaten dituzte eta aurrera eramandako suizidioetan berriz, gizona izatea da arrisku faktore nagusia. Bestalde, bikote gabekoa edo alarguna izatea, sinesmen erlijiorik ez izatea eta familian suizidio edo gaixotasun mentalen aurrekariak izatea ere hirugarren adineko pertsonetan nabarmentzen diren arrisku-faktoreak dira. Bakardadea eta isolamendua izaten da sarritan pertsona helduek sentitzen dutena eta hori arriskutsua izan daiteke osasun fisiko eta emozionalerako. Gainera, gaixotasun kroniko eta sendaezina duten pertsona helduek arrisku handiagoa dute beren buruaz beste egiteko (21, 22).

#### 4.1.5. FAKTORE BIZKORTZAILEAK

Badaude gertaera batzuk estres handia sortu eta ondorioz ekintza suizida bizkortu dezaketenak (1, 4, 11).

- Istripu edo diagnostikoak; gaixotasun larriak, mingarriak edo desgaitasuna eragiten dutenak.
- Hondamendi naturalak.

- Inguruko pertsonen galera.
- Inguru suizida izatea: Bitarteko hilgarrietarako eskuragarritasuna izatea, epidemia suizidak, familiakoen suizidioak, informazio desegokia eskuratzea.
- Bizipen traumatikoak: indarkeria eta tratu txarrak, jazarpena eta sexu-abusua jasan dutenak.
- Toxikoen erabilera handitu dutenak edo intoxikatuak daudenak.
- Inguruko pertsonekin konfliktoak edo arazo legalak izatea.
- Ospitalizazio psikiatrikoko alta (lehen astean arrisku handiagoa).
- Bizitzako gertakari estresagarriak.

#### 4.1.6. BABES FAKTOREAK:

Bestalde, suizidioaren babes faktoreak aipatzea ere garrantzitsua da (1):

##### 3. *Taula: Suizidioaren babes faktoreak*

PERTSONALAK	SOZIALAK EDO TESTUINGURUKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkak edo arazoak konpontzeko trebetasuna.</li> <li>- Norberarengan konfiantza izatea.</li> <li>- Gizarte-harremanetarako eta pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna.</li> <li>- Malgutasun kognitiboa izatea.</li> <li>- Seme-alabak izatea, bereziki emakumeetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiaren eta gizartearen laguntza, eta haren indarra eta kalitatea.</li> <li>- Gizarteratzea.</li> <li>- Sinesmen eta praktika erlijiosoak, espiritueltasuna edo balio positiboak izatea.</li> <li>- Kultura- eta tradizio-balioak eskuratzea.</li> <li>- Tratamendu integrala, iraunkorra eta epe luzekoa, arazo mentalak dituzten, gaixotasun fisikoa duten edo alkoholismoa pairatzen duten gaixoetan.</li> </ul>

**Iturria:** *Egilea*

#### 4.1.7. ARRISKU SUIZIDA DUEN PAZIENTEAREN EBALUAZIOA

Suizidio arriskuaren ebaluazioa eginkizun garrantzitsu, konplexu eta zailena kontsidera daiteke edozein osasun profesionalentzat (16). Gainera, suizidioaren prebentziorako ezinbesteko alderdia da lehen arreta mailan eta baita arreta espezializatuan ere (1). Suizidio-arriskuaren balorazioak protokolizatua egon beharko luke profesionalen artean eta osasun-zerbitzuetan. Ez da horretaz galdetzeko beldurrik izan behar, ez baitu ideagintza suizida eragiten ez duenarengan, ez eta okerragotzen duenarengan ere. Nolanahi ere, jokabide suizida dagoela susmatzen bada, ebaluatu egin behar da beti (1). *American Psychiatric Associationek* (APA) bere buruaz beste egiteko arrisku eta jokabidearen ebaluazioa zein egoeratan egitea den egokia adierazi zuen (19) (Ikus 5. eranskina).

Azpimarratzekoa da ere bere buruaz beste egiten saiatu diren edo lortu duten pertsona asko aldeztatik osasun zerbitzuekin harremanetan egon direla, batez ere familiako medikuarekin. Hala, %75-83 aurreko urtean jarri dira medikuarekin harremanetan, eta %45-66 aurreko hilabetean (16, 23). Honen aurrean, suizidio-arriskua duen pertsona batekin esku hartzeko, prestakuntza- eta entrenamendu-maila ona duten profesionalak behar dira; izan ere osasun-profesionalen prestakuntzak segurtasuna ematen du arriskua ebaluatzeko eta ideia suizida baloratzeko (11, 24).

Suizidio arriskuaren ebaluazioa egiteko bi tresna nagusi daude: elkarrizketa kliniko eta ebaluazio eskalen erabilera, nahiz eta azken hauek ez duten irizpen kliniko ordezkatzen, baizik eta osagarri modura jokatu (1).

Elkarrizketa kliniko ezinbesteko tresna da eta harekin lortutako informazio osoa historia klinikoan erregistratu behar da (14). Gainera, paziente era profesionalaren arteko interakzioa hasten da berarekin eta suizidio arriskua gutxitzeko aukera eman dezakeen tresna da (1). Elkarrizketan garrantzitsua izango da ebaluazio psikopatologikoa eta soziala egitea, non faktore psikologiko eta testuinguruko ebaluazioa eta jokabide suizidaren ezaugarriak agertu behar diren (saiakeraren ezaugarriak, ezaugarri pertsonalak eta testuingurukoak). Garrantzia izango du informazioa pazienteaz gain beste iturri batzuetatik jasotzea: familia, lagunak, ingurukoak, beste profesionalak edo zaintzaileak (1, 15, 17).

Ebaluazio eskalei dagokienez, gaur egun oraindik euren erabilera ez dago orokortua praktika klinikoari dagokionez; izan ere, askotan ez dira itzulita eta egokituta egoten hemengo hizkuntzara. Horregatik, garrantzitsua da ebaluazio-tresnak garatzeko ekimenak eta osasun profesionalen erabilera bultzatzea. Eskala hauek autoaplikatuak edo elkarrizketatzaile batengatik heteroaplikatuak izan daitezke (19) (ikus.4 taula):

4. taula: Suizidioaren ebaluaziorako eskalak.

JOKABIDE SUIZIDAREN ESKALA ESPEZIFIKOAK		JOKABIDE SUIZIDAREN ESKALA EZ ESPEZIFIKOAK	
<b>Jokabide arrisku suizidaren eskalak eta</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Escala de Ideación Suicida de Beck (SSI).</li> <li>- Escala de Valoración de Gravedad de la Conducta Suicida de la Universidad de Columbia (C-SSRS).</li> <li>- InterSePT.</li> <li>- Escala SAD PERSONS.</li> <li>- Escala IS PATH WARM.</li> <li>- Escala de Impresión Clínica Global para Gravedad de Riesgo Suicida (CGI-SS).</li> <li>- Índice de Potencial Suicida (IPC).</li> <li>- Escala de Evaluación Suicidio (SUAS).</li> <li>- Escala de riesgo de suicidio Pöldinger (ROSS).</li> <li>- Cuestionario de Riesgo de Horowitz (RSQ).</li> <li>- Escala de Riesgo Suicida de Plutchik (RS).</li> <li>- Escala de Ideación Suicida de Paykel (PSS).</li> <li>- Cuestionario de Riesgo de Linehan (SBQ).</li> </ul>	<b>Depresioa, etsipena eta estres bitala ebaluatzeko eskalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Escala de Hamilton para la Depresión (HDRS).</li> <li>- Escala de Depresión de Montgomery-Asberg (MADRS).</li> <li>- Inventario de Depresión de Beck II (BDI-II).</li> <li>- Inventario de Razones para Vivir (RFL).</li> <li>- Escala de Desesperanza de Beck (BHS).</li> <li>- Escala de Acontecimientos Vitales Estresantes de Brugha (LTE).</li> </ul>
<b>Ekintza suizida neurtzeko eskalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Escala de Intencionalidad Suicida de Beck (SIS).</li> <li>- Escala de Gravedad Médica de la Tentativa (MDS).</li> <li>- Escala de Riesgo-Rescate (RRRS).</li> <li>- Entrevista semi-estructurada para autopsia psicológica (SSIPA).</li> </ul>	<b>Oldarkortasuna, etsaitasuna eta agresibitatea ebaluatzeko eskalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Historia de Agresión Brown-Goodwin (BGLHA).</li> <li>- Escala de Impulsividad de Barratt (BIS-11).</li> <li>- Escala de Impulsividad de Plutchik (IS).</li> <li>- Inventario de Hostilidad de Buss-Durkee (BDHI).</li> <li>- Escala de Riesgo de Violencia de Plutchik (ERVP).</li> </ul>
<b>Errepikatzeko arriskua ebaluatzeko duten eskalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Escala de Edimburgo de riesgo de repetición (ERRS).</li> <li>- Escala de intencionalidad modificada (MIS).</li> <li>- Escala de riesgo de repetición (RRS).</li> </ul>	<b>Psikopatologia orokorraren ebaluazio eskalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MINI Entrevista Neuropsiquiátrica Internacional.</li> </ul>

Iturria: Egilea

Honetaz gain, “Manual de Prevención, Intervención y PostVención de la Conducta Suicida” liburuan (19), egileak kasu bakoitzean erabili beharreko eskalen gomendio taula bat egiten du, erabilera sinplifikatzeko asmotan (ikus 5. Taula):

5. taula: Kasu bakoitzean erabili beharreko eskalen gomendioa.

<b>HETEROAPLIKATUAK</b>	Lehen arreta maila		SAD PERSONS
			IS PATH WARM
	Larrialdiak		Cuestionario de Riesgo de Suicidio de Horowitz (RSQ)
	Osasun mentala	Suizidio ahalegin gabe	Escala de Ideación Suicida de Beck (SSI)
			Escala de Valoración de la gravedad de la conducta Suicida de Columbia (C-SSRS)
		Suizidio ahaleginarekin	Escala de Intencionalidad Suicida de Beck (SIS)
		Heriotza	Entrevista semi-estructurada para autopsia psicológica (SSIPa)
<b>AUTOAPLIKATUAK</b>			Escala de Desesperanza de Beck (BHS)
			Escala de Riesgo Suicida de Plutchik (RS)
			Inventario de Razones para Vivir (RFL)

Iturria: Egilea

## 4.2.ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA LEHEN ARRETA eta LARRIALDI MAILAN

### 4.2.1. LEHEN ARRETA MAILA

Lehen arreta mailako profesionalek ezinbesteko garrantzia dute jokabide suizidaren ebaluazio eta maneian urtez urte pazienteekin izandako harremanak konfiantza ematen dietelako (1). Gainera, osasun sisteman sartzeko sarrera puntua da lehen arreta maila, komunitaterekin etengabe harremana du, biztanleriaren osasunaren inguruko erreferente izanez eta populazioarekin mantentzen duen harreman horrek

pazientearen inguruneke informazio izatea bermatzen dio bertako profesionalari, arreta eta zainketaren jarraipena egiteko (12, 24). Halaber, jakina da beren buruaz beste egiten saiatu direnen %75ak aurreko urtean euren medikuarekin harremanetan jarri zirela eta %45ak aurreko hilabetean izan zuela kontaktua (23). Pazienteak heriotzaz hitz egiteko espazioa izateak, profesionalak entzute aktiboa erabiliz, suizidio pentsamenduen fase arinak sortutako antsietatea murriztu dezake. Halaber, heriotzaz eta suizidioaz hitz egiteak ez du arriskua ezabatzen, baina ez du handitzen eta murriztu egin dezake. Are gehiago, pazienteak izaten ari den emozio negatibo horri izena eman diezaioke, sentimenduari zentzua emanez eta hau desaktibatuz gero, denbora irabaz daiteke, autolisia atzeratuz eta bizitzarekiko konpromisoa negoziatuz (1).

Ez da erraza pazienteei beren ideia suizidei buruz galdetzea. Galderak pixkanaka egin beharko dira. Ez dira ez zorrotzak ez hertsatzaileak izan behar, eta modu bero eta enpatikoan egin beharko dira (1). Gainera, osasun profesionalak suizidio gaiaren inguruan galdetzean euren burua eroso dagoen ebaluatzea garrantzitsua izango da (24). Oklahomako suizidioaren prebentziorako errekurtsio zentroak (SPCR) lehen arreta mailarako egindako lan tresnan aipatzen dira gaiaz galdetzeko zehaztapenak (24) (Ikus 6. eranskina).

Suizidio ideiak dituzten pazienteetan beharrezkoa da faktore soziodemografikoen ebaluazioa, gaixotasun mentalen presentzia, aurretiko saiakerak eta familiako aurrekariak ebaluatzea. Gainera, maila asistentzial honetan garrantzitsua izango da suizidioaren arrisku-maila (baxua, erdikoa eta altua) zehaztea eta horren arabera deribazio eta interbentzioa egitea (1, 4, 19, 23-29). Arrisku-maila zehazteko Espainiako Erkidego desberdinetan modu desberdinak erabiltzen dira: alde batetik, OMEren SUPRE programan definitutakoa gomendatzen da “Guía de Práctica Clínica de Prevención y Tratamiento de la Conducta Suicidio”, “Prevensuic: guía práctica de prevención del suicidio para profesionales sanitarios”, Nafarroa eta Andaluziako gidaliburuetan (1, 4, 23, 24). SUPREren arrisku-mailaren taula 7. Eranskinean ikus daiteke. Beste alde batetik, *Mini International Neuropsychiatric Interview* eskala erabiltzen da Asturias eta Katalunian (26, 28). Azken honetan, 1-5 arrisku baxua, 6-9 erdi mailako arriskua eta 10 baino gehiagoko puntuazioarekin arrisku altua adieraziz.

#### 4.2.2. LARRIALDIAK

Larrialdietako zerbitzuek, ospitalekoek nahiz ospitalez kanpokoek, garrantzia handia dute suizidioari dagokionez; izan ere, askotan, ideia gintza edo portaera suizida duen pazienteak osasun-sistemarekin harremanetan jartzen den lehen tokiak dira (1).

Larrialdietara joaten den paziente orori hasierako balorazio bat egiten zaio triaje bere larritasunaren arabera lehenesteko. Espainian gehien erabiltzen den sistema *Manchester Triage System* (MTS) da. Sistema honetan 5 larritasun-maila daude (Ikus 8. eranskina). Oinarritzkoa litzateke jokabide suizida duen paziente orori gutxienez 3 maila jartzea triaje. Halaber, garrantzitsua izango da berehalako arreta behar ez duen pazientearen kasuan galdera hauek kontuan hartzea (1):

- 1) Gaixoa ondo dago fisikoki itxaron ahal izateko?
- 2) Berehalako suizidio-arriskua dago?
- 3) Gaixoa zaintzeko neurririk hartu behar da?
- 4) Medikuak ikusi arte itxaron dezake pazienteak?

Triajeko erizainen inguruko ikerketa baten arabera, triajeko erizainak pazienteari bere burua mindu nahi duen galdetzean, erantzun errealarari arreta gutxi jartzen diotela adierazten dute. Hori beharrean, pazienteak galderaren aurrean izandako erreakzioari garrantzia gehiago ematen zaiola azaltzen da. Zehazki, erizainek zenbait portaera kontatzen dituzte, hala nola, begi kontaktua mantentze eza edo erantzuterako orduan pazienteak duda asko izatea, pazienteak bere buruaz beste egiteko seinale adierazgarri gisa deskribatzen dituzte (30).

Jokabide suizida duten paziente guztiak larrituta egongo dira, batzuk larrialdi zerbitzuan egoteagatik eta beste batzuk bizirik egoteagatik. Askok estigmatizatuta eta lotsatuta sentituko dira. Garrantzitsua izango da erosotasuna, lasaitasuna eta itxaropena eskaintzea eta batez ere epaiketarik ez egitea (31).

Donostiako Ospitaleko larrialdietan suizidio saiakera izan duen pazientearen maneiuaren inguruko protokoloaren arabera, garrantzitsua izango da suizidio arriskuaren ebaluazioa egitea eta arrisku-maila finkatzea. Hala ere, paziente suizidaren ebaluazioa psikiatrak egin behar duela adierazten da (32).

Larrialdietan, pazientearen eta osasun profesionalaren segurtasunak lehentasuna izan behar du bere buruaz beste egiteko arrisku handia duten pazienteari erizaintza-



zainketak ematean: gaixoa bakarrik ez utziz, eta batez ere segurtasuna ziurtatuz. Esku-hartze hauek egin behar dira (33):

- Prozedura/esku-hartze guztiak azaltzea.
- Erakundeko segurtasuneko prozedurekin hastea, hala nola, arropa kendu eta objektu pertsonalen zainketa.
- Langile bati esleitu pazientearen etengabeko zainketa eta behaketa (langileak gaitasunetan oinarrituta trebatu behar dira).
- Esku-hartzeekin lotutako efektu kaltegarriak kontrolatzea (adibidez, botikengatik sortutakoak).
- Osasun mentaleko profesionalekin kontsultatu, pazientearen pentsamendu edo planetan esku-hartzeko garaian.
- Krisian esku-hartzea eta egon daitezkeen aukerak eztabaidatzea egungo estres-faktoreei aurre egiteko.
- Erabakiak hartzeko prozesua dokumentatzea.
- Deribazio egokiak egin.

Larrialdietan arrisku-maila egoki ebaluatu ondoren, pazientearen nondik norakoa (deribazioa) erabakiko da. Osasun mentaleko profesionalak ebaluatu beharko du pazienteak ospitalean ingresatzeko baldintzak betetzen dituen ala ez. APAk hainbat irizpide ezarri ditu horren baitan (Ikus 9. eranskina) (1).

#### 4.2.3. GIPUZKOAKO SUIZIDIOAREN PREBENTZIORAKO PROGRAMA PILOTUA

Gipuzkoan, *European Alliance Against Depression*-en (EAAD) integratua, suizidioaren prebentziorako programa pilotu bat eraman zen aurrera, lehen fasea 2013-2014 urteetan zehar izanez. Gipuzkoako bi Erakunde Sanitario Integratuetan (ESI) aplikatu zen: Debabarreneko ESI (80.000 biztanle, eskualdeko ospitale bat eta osasun mentaleko zentro bat), Goierri-Urola Garaiko ESI (95.000 biztanle, eskualdeko ospitale bat eta osasun mentaleko hiru zentro) (34, 35). EAADeko edozein programa bezala lau mailako interbentzioa izan zuen: biztanleria orokorrean, gizarte bideratzaileetan, komunikabideetan eta osasun sisteman. Osasun sistema mailako interbentzioan, gaixoen detekzioa, esku-hartzea eta bere buruaz beste egiten saiatu ondoren, jarraipena hobetzea izan ziren.

- Larrialdietako esku-hartze sanitarioaren mailan (eskualdeko bi ospitale,

guardiako psikiarrik gabe), hiru orduko prestakuntza saioak egin ziren larrialdietan lan egiten duten lehen arreta mailako profesionalentzat. Bestalde, larrialdietako zerbitzuen eta osasun mentaleko zentroyen artean deribazio-protokoloak sortu ziren, eta horietan 10 egun baino gutxiagoan lehenagoko kontsulta eginez.

- Osasun Mentaleko zentroetan berriz, egondako saiakera guztien erregistroa sortu zen eta jarraipen-programa espezifiko bat sortu zen (Telefono Jarraipen Laburraren Protokoloa), erizainen esku geratzen zena.

Programan 32 paziente sartu ziren, eta horietatik %83 telefono bidezko jarraipenean egon ziren 3 hilabetera eta %60a 6 hilabetera. Urtebeteko epean, %6ko suizidio-saiakera berri tasarekin lortu zen esku-hartzea.

2014. urtean hasi zen abian proiektuaren bigarren fasea. Hauek barne:

- Bere buruaz beste egiten saiatu berri diren gaixoentzako Telefono Segimendu Laburreko Programa baten eraginkortasuna ebaluatzeko saiakuntza klinikoa, erizaintzako talde baten eskutik (*call center* sanitarioa). Programaren aurreko esperientzian oinarritua eta EAeko 3 ospitale orokorretan garatua.
